

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BASOBERRITZEA ETA LEHENERATZE HIDROLOGIKOA	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF1264		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Naturaguneen leheneratze, mantentze, antolamendu eta defentsaren kontrola eta zaintza	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Basogintza eta baso-izurriteen kontrola	Iraupena	40
	Baso-suteak itzaltzea	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0086_3 BALIABIDE NATURALAK LEHENERATU, MANTENDU, ANTOLATU ETA BABESTEKO ERAGIKETAK ZAINZEA ETA HAIETAN LAGUNTZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Basoberritzeko proiektu edo plan tekniko bat identifikatzea eta interpretatzea.

E1.1 Basoberritzeko proiektu bat edo plan tekniko bat osatzen duten zatiak aztertzea, haietako bakoitzaren esanahia eta edukiak azalduz.

E1.2 Planoetako informazioa interpretatzea.

E1.3 Ingurumen-inpaktuaren adierazpena lanen plangintzara estrapolatzea.

E1.4 Basoberritze-lan baten faseak deskribatzea, fase bakoitzaren helburuak eta fase bakoitza gauzatzeko erabilgaitako teknikak, prozedurak eta baliabideak azalduz.

E1.5 Baso-espezie nagusiak identifikatzea, basoberritzean duten esku-hartzea azalduz.

E1.6 Basoberritze-lanaren faseetan sor daitezkeen ingurumen-inpaktu negatiboak identifikatzea, eta haiek minimizatzeko eta/edo zuzentzeko sistemak eta teknikak azaltzea.

E1.7 Egindako lanak gainbegiratzea, eta behar denean konponbideak proposatzea.

E1.8 Indarrean dagoen legedia eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak betetzen direla egiaztatzea.

E1.9 Usteko basoberritze bat egiteko behar diren ekipo eta materialak erabiltzeko kasu praktiko batean:

- Haiek zatiak, piezak eta/edo osagaiak adieraztea eta deskribatzea.
- Haien erabilera zehaztea.
- Mantentze-lanetako eta garbiketako lanak gainbegiratzea.
- Arduraz —segurtasuneko eta lan-osasuneko neurriak aplikatuz— maneiatzen direla gainbegiratzea.

A2: Basoa eta sistema hidrologikoa zuzentzeko teknikak azaltzea, eta horrelako proiektu batean aurreikusitako lanak gainbegiratzea.

E12.1 Erliebearren, landare-estalkiaren eta lurzorua higiduraren arteko erlazioa azaltzea.

E12.2 Degradatutako landaredia berreskuratzeko erabiltzen diren teknika nagusiak azaltzea.

E12.3 Ibaiertzeko landaredia berreskuratzeko lan baten faseak identifikatzea, eta horretarako erabiltzen diren helburuak eta teknikak, prozedurak eta baliabide materialak azaltzea.

E12.4 Basoa eta sistema hidrologiako zuzentzeko proiektu baten egitura ezagutzea.

E12.5 Arro hidrologikoak zuzentzeko proiektuei buruzko araudi espezifikoa identifikatzea eta ezartzea, eta hura betetzen dela gainbegiratzea.

E12.6 Higidura-prozesu bat ikusten den arro hidrologiko baten kasu praktiko batean:

- Higiduraren kausak identifikatzea.
- Zuzenketa-neurriak proposatzea.
- Higidura horrek eragindako inpaktuak ebaluatzea.

A3: Ibilguak zuzentzen erabiltzen diren luzetarako eta zeharkako obren eraikuntza-xehetasunak deskribatzea.

E13.1 Elur-jausien kontra defendatzeko teknikak eta metodoak azaltzea.

E13.2 Basoa eta sistema hidrologikoa zuzentzeko proiektuaren fase bakoitzerako egokienak diren neurtze-teknikak eta -prozedurak identifikatzea.

E13.3 Basoa eta sistema hidrologikoa zuzentzeko lanak gauzatzeko laneko arrisku-egoerak aztertzea, laneko arriskuak prebenitzeko plana eta obrako segurtasun-plana interpretatuz.

EI3.4 Basoberritze-lanaren faseetan sor daitezkeen ingurumen-inpaktu negatiboak identifikatzea, eta haiek minimizatzeko eta/edo zuzentzeko sistemak eta teknikak azaltzea.

EI3.5 Basoa eta sistema hidrologikoa zuzentzeko lanak kontrolatzea, egindako lanak gainbegiratzea eta behar denean konponbidea proposatzea.

EI3.6 Indarrean dagoen legedia betetzen dela eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak errespetatzen direla egiaztatzea.

EI3.7 Ibilgua zuzentzeko lan baten kasu praktiko batean:

- Proiektuaren zati bakoitza identifikatzea.
- Inpaktu-azterketaren baldintzatzaileak estrapolatzea.
- Zuzenketa hidrografikoko proiektua betetzen dela gainbegiratzea.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketaren baldintzatzaileak betetzen direla gainbegiratzea.
- Beharrezkoak diren segimendu-txostenak eta/edo ikuskapen-aktak idaztea.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketaren segimendu-fitxak betetzea.

Edukiak

1. Baso-eremuen basoberritzea.

- Zuzenketa hidrologikoko proiektuen edukiak eta funtzioak.
 - Helburuak.
 - Egitura: dokumentu idatziak, planoak, krokisak eta txosten fotografikoa, besteak beste.
 - Araudia.
- Baso-berritzeko baso-lanak.
 - Lurzoruak prestatzea.
 - Ereitea/Landatzea.
 - Landareak zaintzea.
 - Hutsarteak betetzea.
- Kontrol-, segimendu- eta zaintza-neurriak.
 - Baso-espezieak.
 - Identifikazioa.
 - Egiten dituzten funtzioak.
- Baliabide mekanikoak eta giza baliabideak.
 - Makinak.
 - Erremintak.
 - Langileak.
 - Laneko teknikak.
- Segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena babestekoak aplikatzea birpopulazio-jardueretan.
- Haztegiak.
 - Ezaugarriak.
 - Hazia prestatzea eta landarea ekoiztea.
 - Lana antolatzea.
 - Araudia.
 - Material genetikoa.
 - Kontserbazioa eta garraioa.
 - Erabilera baimendua eta ez baimendua.

2. Arro hidrologikoetako basoen leheneratzea.

- Arro hidrografikoetako higadura-eragileak eta -prozesuak.
- Basoa eta sistema hidrologikoa zuzentzearen helburuak.
- Leheneratzea-faseak.
- Baso-espezierik egokienak.
- Baso-leheneratze hidrologikoko proiektuak.
 - Ingurumen-baldintzatzaileak.
 - Inpaktuak adieraztea.
- Baso-leheneratze hidrologikorako lanak eta ekipamenduak.
- Baso-eremuetako arro hidrografikoen leheneratzea arautzen duen araudia.

3. Arro hidrologikoak zuzentzeko eraikuntzak.

- Eraikuntza-motak: luzetarakoak eta zeharkakoak.
 - Kokapen eta aukera egokiena.
 - Makinak eta erremintak.
 - Erabiltzen diren materialak.
 - Giza baliabideak.

- Lanen planifikazioa.

4. Ingurumen-inpaktua.

- Ingurumen-inpaktuaren kontzeptua, motak, balorazioa. Giza jarduerak eragindako kalte ekologikoak. Kalteak saihesteko edo minimizatzeko neurriak. Inpaktua eta eragindako kalteak zuzentzea.
- Natura-ingurunearen erabilera publikoa babesteari eta kudeatzeari buruzko legedia.
- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legedia.
- Mendiei buruzko oinarritzko legedia: mendiei buruzko legea, autonomia-erkidegoetako eta abelbideei buruzko baso-araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa